

DATUAK BABESTEKO ADIERAZPENA

ICCS 2022 GIZA- ETA HERRITAR-HEZKUNTZA NAZIOARTEKO AZTERLANA

Erakunde arduradunen nortasuna eta harremanetarako datuak:

Hezkuntza Ebaluazioko Institutu Nazionala (Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa)

Paseo del Prado, 28 4ª planta
28014 Madrid
info.inee@educacion.gob.es

IEA

Keizersgracht 311
1016 EE Ámsterdam
Herbehereak
Teléfono: +31 20 625 3625
secretariat@iea.nl



Zertarako biltzen eta prozesatzen dira datuak?

Giza- eta Herritar-Hezkuntzari buruzko nazioarteko azterlanean bildutako datuak (ICCS, 2022) helburu zientifikoetarako baino ez dira erabiliko. ICCS Hezkuntza Errendimendua Ebaluatzeko Nazioarteko Elkarteak (IEA) zuzentzen duen hezkuntza-ikerketako azterlan bat da.

Datuen erabilera hiru araudi hauen arabera egingo da:

1. Abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa.
2. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra. Erregelamendu hori pertsona fisikoen babesari buruzkoa da, eta datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokie. Gainera, Europar Batasunaren uztailaren 27ko Errege Lege Dekretuaren bidez barne-ordenamenduan txertatuta dago.
3. Halaber, kontuan hartuko dira Funtzio Estatistiko Publikoari buruzko maiatzaren 9ko 12/1989 Legea eta lege horietatik eratorritako araudia.

Zein da eskatutako informazioa?

1. **Ikasleei:** ICCS 2022 ikaslearen galdetegia. Galdetegiak informazio hau jasotzen du:
 - a. Herritarrek komunitatean eta ikastetxean duten parte-hartzea.
 - b. Gai zibikoen eta herritartasunaren inguruko jarrerak eta pertzepzioak.
 - c. Informazio pertsonala (generoa, adina, jaioterria, legezko gurasoen/tutoreen jaiotza-herrialdea, etxean hitz egindako hizkuntza).
2. **Irakasleei:** irakasleen galdetegia. Erantzunek informazio hau emango diote azterlanari: hautatutako eskolari buruzkoa, ikasgelan dauden baliabideak, irakaskuntza-praktikak, eskola-lanak, emandako gaiak, ikasgelako jarrerak eta zenbait datu pertsonal (adina, generoa, prestakuntza eta esperientzia).
3. **Zuzendariari:** Ikastetxeko galdetegia. Erantzunek informazio hau emango digute: ikastetxearen ezaugarriak eta baliabideak, ordutegia, prestakuntza akademikoa eta lan-esperientzia, eta duen iritzia hezkuntzaren inguruko zenbait gairi buruz.

Ikastetxeek hezkuntza-ebaluazioetan duten parte-hartzea Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren (LOE) 91. eta 142. artikuluen bidez arautzen da. Lege hori Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoak (LOMCE) eta Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aldatzen duen abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoak aldatu zuten.

Galdetegia betetzean, baimena ematen duzu datuak tratatzeko deskribatutako baldintzetan.

Zer datu mota biltzen dira?

Ikasleen erantzunen datuak bildu eta biltegitatu egiten dira. Horretarako, galdetegiko aukeraketa bakoitzari zenbaki bat esleitzen zaio.

Informazio hori, berez, ezin da erabili parte-hartzaileak beren izenarekin identifikatzeko.

Bestalde, ikasle bakoitza identifikazio-kode baten bidez erregistratzen da. Ikasleari esleitutako identifikazio-kodea eta haren izenaren arteko erlazioa ikastetxeko azterlanaren koordinatzaileak bakarrik ezagutzen du. Informazio hori ez da inola ere partekatzen IEAren edo hirugarrenekin.

Non, nola eta zenbat denboraz gordetzen dira ICCS azterlanaren datuak?

ICCSren datuak modu seguruan gordetzen dira eta ezin dira kanpoko pertsonentzat edo kanpoko sistementzat eskuragarri egon. Gainera, IEAko arduradunei edo ACERen ikerketaren nazioarteko zentroari (datuak prozesatzeaz arduratzen direnak) datuen tratamendu egokiari buruzko informazioa eman zaie, eta konfidentzialtasun-akordio bat sinatu dute.

Nola biltegitzen dira datuak?

Erantzunen datuak betirako gordetzen dira eta eskuragarri daude aztertzeko. Azkenik, erantzunak datu-base batean gordetzen dira. Ikertzaileek, datu-base horretan oinarrituta, munduko hezkuntza-sistemak konparatu ahal izango dute (ikus **Sarbide Publikoa** beheago).

IEAk modu zentralizatuan prozesatzen ditu datuak Hanburgoko (Alemania) egoitzatik. Datuak prozesatzeko, bildutako informazio guztia anonimo bihurtuta bidaltzen da, ikasleen identifikazio-kodeekin soilik.

Nola eta norekin partekatzen dira ICCS azterlanaren datuak?

Erantzunekin erlazionatutako datuak ftp zerbitzari seguru baten bidez bidaltzen dira IEAra, eta herrialdeetako koordinatzeko arduradunak pseudonimizatu egiten dituzte. Informazioa bereizita gordeko da, eta neurri teknikoak eta antolaketa-neurriak hartuko dira, bermatzeko datu pertsonalak ezin zaizkiola pertsona fisiko bati esleitu.

ICCSak ACERen (Australia) dagoen International Study Center-etik (ISC) kudeatzen dira, eta bertan egiten dira datuen analisi gehienak. Datuak aztertzeko sarbidea duten ISCKo arduradunek konfidentzialtasun-akordio bat sinatu dute alde aurretik. Datuak Australiara transferitzen dira modu seguruan, hirugarren herrialde gisa, datuak babesteko akordio espezifikoekin eta Europako araudiaren estandarrak betetzen dituzten kontratu-klausulen bidez.

Datuak herrialde bakoitzeko ICCS azterlanaren zentro koordinatzailearekin partekatzen dira berriro, ftp zerbitzari seguruak erabiliz.

Lotutako datuak

Irakasleei ez ezik, ikasleei eta zuzendariei ere galdetegi bat osatzeko eskatzen zaie. Iturri horietatik datorren informazioa nazioarteko behin betiko datu-basearekin lotzen da (IDB, ingelesezko siglen arabera).

Sarbide Publikoa

Nazioarteko behin betiko datu-basea webgune honetatik eskuratu ahal izango da:

<https://www.iea.nl/data> (Hamburgo, Alemania)

Datu-basean dagoen informazio guztia modu pseudonimizatuan gordetzen da, norbanakoekin lotu ezin izateko.

Erabakiak hartzea eta profil automatizatuak egitea

Ez da erabaki individual automatizaturik hartzen, barne Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren 22. artikularen arabeko profilak egitea.

Interesdunentzako sarbide-eskubideak

Azterlanean parte hartzen dutenek Datuak Babesteko Arautegi Orokorren 15-20 artikuluen arabera balia ditzakete haien eskubideak.

Azterlanean parte hartzen dutenek erreklamazioa aurkez diezaizkete erakunde ikuskatzaileari.

Eskubide hori betetzeko, harremanetan jarri behar dute honekin : Instituto Nacional de Evaluación Educativa (Ministerio de Educación y Formación Profesional) Paseo del Prado, 28 4ª planta 28014 Madrid.